

Funtsezko baliabideak


Gure enpresan behar ditugun baliabideak lau taldeetan banatzen dira:

- ❖ **Baliabide fisikoak:** Hainbat dira baliabide fisikoak, hala nola: Guk salduko ditugun produktuak, furgoneta, furgonetak beharrezkoa duen gasolina, dirua gordetzeko eta kontuak egiteko lagungarria den diru-kutxa...



- ❖ **Baliabide intelektualak:** Enpresaren izena beharko dugu eta ezagutza komertzialak ere beharrezkoak ditugu bezero berriak egin eta lehendik ditugunak mantentzeko.

- ❖ **Giza-baliabideak:** Enpresaren sorreran, bost kargu banatuko ditugu gure artean. Hasteko, salgaiak erosiko dituen bat, Maider. Administrazio eta kudeaketak Olaiak eramango ditu. Erositako salgaiak saltzeaz arduratuko dena Oier izango da, eta honekin batera Aimar arituko da garraio lanetan. Bitartean, Haritz izango da web orriaz arduratuko dena.



- ❖ **Finantza-baliabideak:** Enpresa martxan jartzeko bazkide bakoitzak diru kopuru jakin bat jarriko genuke. Honez gain, furgoneta erosteko mailegu bat ere beharko genuke.